

ASUA

Asua-Lauroeta da biztanle entitate honen izen ofiziala. Loiu udalerrian zuen enklabeari egiten dio erreferentzia Lauroetak, baina dagoeneko enklabe hori ez da Erandiokoa. 1998tik Loiu udalerrarena da berriro ere.

Txorierri haraneko gune garrantzitsua da **Asua**, bereziki garrantzitsua izan zen garai batean portua zuelako eta harana itsasoarekin lotzen zuelako. Denborarekin baina, Asuko ibaia indarra galduz joan zen, inguruneko industriek erabat kutsatu eta ura galdu zuen heinean. Gaur egun industria-gune garrantzitsua dugu.

Asua auzo honetan biltzen ziren garai batean Erandioko dorretxerik garrantzitsuenak, besteak beste: **Urazandi**, **Asuko dorrea**, **Torrebiarte** edota **Torrezarra**. **Torreta** auzoaren izenaren etimoak berak, dorretxe asko ze-goen lekua esan nahi du.

Izenari dagokionez argitu beharra dago amaierako –a artikulua dela, eta beraz, euskaraz deklinaturik eman behar dugunean, –a galdu egiten duela, adibidez: ni *Asukoa naiz*, *Asura noa* edota *Asutik nator*, baina *Asuan bizi naiz*.

El nombre oficial de esta entidad de población es **Asua-Lauroeta**. El nombre Lauroeta hace referencia al enclave de Erandio en el municipio de Loiu que actualmente no pertenece a Erandio, puesto que desde 1998 forma parte del municipio de Loiu.

Asua es un núcleo importante dentro del valle del Txorierri, y lo fue especialmente en otro tiempo porque contaba con un puerto que unía el valle con el mar. Con el transcurso del tiempo, el río Asua perdió peso, debido a la disminución del caudal y a la contaminación producida por la industria instalada en sus márgenes. Hoy en día, Asua es una zona industrial de relevancia.

En otro tiempo las casas-torre más importantes se concentraban en el barrio de Asua, entre otras, **Urazandi**, **Asuko dorrea**, **Torrebiarte** o **Torrezarra**. Son, por lo tanto, étimos del nombre del barrio **Torreta**, nombre que designa un lugar donde hay muchas casas-torre.

En lo que respecta al nombre, hay que apuntar que la –a final es el artículo y, por lo tanto, se pierde al declinar el nombre en euskera, por ejemplo, *Asukoa naiz* (soy de Asua), *Asura noa* (voy a Asua) o *Asutik nator* (vengo de Asua), pero *Asuan bizi naiz* (vivo en Asua).



TORRETA
auzunea

URAZANDI

Leorbaso

Asuko toponimo zaharra, XVII. mendetik dokumentatzen dena. Ezaguna da oraindik ere, tailer baten izena izateaz gain, garai batean Apurtuar-te futbol-taldearen zelaia izan zelako 1956. urtera arte. Urte horretan desagertu egin zen, zelaia inguruaren industrializazio garapenaren ondorioz.

Se trata de un topónimo muy antiguo de Asua, documentado ya en el siglo XVII. Hoy en día todavía se conoce, puesto que además de ser el nombre de un taller, en otro tiempo fue el nombre del terreno de juego del club de fútbol Apurtuar-te, hasta el año 1956. Ese año desapareció como consecuencia del desarrollo industrial del entorno.

Katea

Katea edo erdaraz **La Cadena** izenaz ezagutzen den gune honek, garai batean bertako pasabidea mozten zuen kate bati zor dio izena. XIX. mende amaieratik dokumentatzen dugu eta gaur egun **La Cadena** izenaz ezaguna bada ere, euskaldunek **Katea** deitu diote beti. 1885eko dokumentu batean hauxe jaso dugu: "*Cateaco-echevarria-doñabeitia*". 1892an jasotako "*Catea-ondo*" toponimoak ere argi erakusten du garai hartako euskaldunek ere hala esaten ziotela.



El nombre **Katea** o su correspondiente castellano **La Cadena** se debe a una cadena que regulaba el paso por el lugar en otro tiempo. El topónimo está documentado desde finales del siglo XIX, y aunque hoy en día se conoce comúnmente por el nombre de **La Cadena**, los euskaldunes siempre han denominado al lugar **Katea**. Así, en un documento de 1885 se recoge lo siguiente: "*Cateaco-echevarria-doñabeitia*". Por otra parte, el topónimo "*Catea-ondo*", recogido en un documento de 1892, demuestra asimismo que quienes hablaban euskera utilizaban ese nombre para nombrar el lugar.

Faoeta (*Fano(s)*)

Enekuri ondoko auzo honen euskarazko izena **Faoeta** da, eta horrela erabiltzen dute bertako euskaldun zaharrek euskaraz ari direnean (ahoz *Fáqueta* esaten diote). Erdaraz, ordea, **Fano** (*Fanos*) forma zaharragoa erabiltzen da. XVIII. mendeko dokumentuetan ageri zaigu lehenengoz **Faoeta**. Euskarazko forma berandu agertzea normala da, izan ere administrazioak ez baitzuen euskarazko formarik erabiltzen ahoz erabilera normaldua izan arren.

Forma bikoitza erabiltzearen arrazoia da bokal arteko *-n-* kontsonantea galtzea, Galdakao edo Lemoa herri izenetan gertatu bezala, *Fao* esaten diote euskaraz. *Lauro/Lauroeta* bikoizketa gertatzen den bezala, hemen *Fao/Faoeta* izenen alternantzia daukagu. XX. mendean ohikoa izan da leku izenen erdarazko formari amaieran *-s* gehitzea (*Erletxeta*<*Erletxes*), XX. mendeko fenomeno hau, inguru honetan zabaldua dena, ez da batere zuzena ahozko zein idatzizko erabileran.



El nombre en euskera de este barrio contiguo a Enekuri es **Faoeta**, y así lo utiliza la gente del lugar cuando habla en euskera (oralmente, dicen *Fáqueta*). En castellano se utiliza la forma **Fano** (*Fanos*). **Faoeta** aparece por primera vez en documentos del siglo XVIII. Esa aparición relativamente tardía es normal, puesto que la formas en euskera apenas se han documentado, aún teniendo una utilización oral normalizada. Por otra parte, históricamente es muy

frecuente en euskera perder la consonante <n> intervocálica, tal y como ha sucedido en los nombres de los municipios Galdakao o Lemoa. Así, en euskera denominan **Fao** al barrio. También es frecuente añadir el sufijo *-eta* al nombre y, sobre todo, alternar el sufijo *-eta* con el sufijo pluralizante *-s* en castellano (*Erletxeta*<*Erletxes*). Este fenómeno surgido en el siglo XX y muy extendido en esta zona es del todo incorrecto, tanto en su utilización oral como escrita.

Kaukoerreka (*Kaukarraka*)

Toponimo hau Faeta auzoko bide bat izendatzeko erabiltzen da. Leku-izen honen jatorria Sondikako base-ri bat da, dagoeneko desagertua. Erandion 1803an dokumentatzen da lehenengoz *Cauquerreca* formaz. Sondikan ordea 1704 eta 1796ko sutegi-errol-detan aurkitzen dugu "*Cabuco erreca*" formaz. Lehenengo elementuak etimologia iluna du, baliteke akabuko (amaierako) etimoa izatea; bigarrena, *erreka* hitza dugu. Ahoz *Kaukarraka* esaten dioten arren, idatzizko forma zuzena **Kaukoerreka** da.



Este topónimo se utiliza para nombrar un camino del barrio de Faeta. El origen de este nombre es un caserío de Sondika, actualmente desaparecido. En Erandion se documenta por primera vez en el año 1803 bajo la forma de *Cauquerreca*. En Sondika, en cambio, podemos encontrarlo en las fogueraciones de 1704 y 1796, como "*Cabuco erreca*". El primer elemento tiene una etimología difícil; pudiera provenir del étimo *akabuko* (del final); el

segundo elemento es la palabra *erreka* (arroyo). Oralmente, aunque se conoce por *Kaukarraka*, la forma escrita correcta es **Kaukoerreka**.



TORREZARRA

Asuko (Faoeta) etxaldeak mendez mende Caseríos de Asua (Faoeta) a lo largo de los siglos

| XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK | XVIII. MENDEKO ETXEAK |
|--|------------------------------|
| CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES | CASAS DEL SIGLO XVIII |
| Arana (Arantxu) * | Antonbidea * |
| Astikaerdikoa | Armotxa |
| Astikaosteikoa * | Arteaga * |
| Astikaurrekoa | Dendariena |
| Asuko dorrea * | Errota |
| Aurteneko | Kurrullu |
| Bengokoa | Kurtzelarreta(goikoa) |
| Bidekoa | Kurtzelarretabekoa * |
| Elorriaga * | Lastetxebekoa |
| Errenterizarra (Txoriena) | Leurokoerrota |
| Estartetxe * | Motsena |
| Faoaurrekoetxea (<i>Aurrekoetxe</i>) | Olpe * |
| Faoeta | Solobiarte * |
| Faoetxebarria | Tellerizarra * |
| Goikoko | Torrerdikoa * |
| Iguaur * | Ugarte * |
| Jauregi | |
| | Labekoa |
| | Prudentzioetxe * |
| | Real de Asua * |
| | Tomasena |
| | Torrebarria * |
| | Torrebiarte * |
| | Torrezarra |
| | Urazandi (Mayorazgo) |
| | Urazandi (beste bat) * |
| | Urazanditxikerra (Etxatxu) * |
| | Zarraga |
| | Zarragatxu * |

Asuko (Faoeta) etxaldeak mendez mende Caseríos de Asua (Faoeta) a lo largo de los siglos

XIX. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XIX

Aldaiosteko *
 Asuko benta *
 Bega (Jainkotxu) *
 Domartinena
 Goikoetxea *
 Goikotaberna *
 Katea *
 Kurrullubarri
 Lastetxegoikoa
 Olaskoaga *
 Torretagana
 Urazandiosteikoa *

XX. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XX

Aldai *
 Armotxagoikoa *
 Atxaerandio
 Atxalandabaso
 Bekoetxe
 Bekosangurti
 Bengokoazpi
 Bidekoste
 Etxetxikerra
 Ibaiondo
 Lubarri
 Sangurti
 Sangurtibarri
 Txitxiturri *